JP/aj **14- R.116-MA/11**

**ERANSKINA - ANEXO**

**ASTIGARRAGAKO HIRI ANTOLAKETAKO PLAN OROKORRAREN ALDAKETAREN (*"SANTIAGOMENDIKO JURASIKOA" INTERES GEOLOGIKOKO PUNTUARI DAGOKION ALDAKETAREN)* INGURUMEN ERAGINAREN BATERAKO EBALUAKETA EGITEKO ERREFERENTZIAKO AGIRIA**

**1.- AURREKARIAK**

Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko lege orokorrak, otsailaren 27ko 3/1998 Legeak, 41. artikuluan aurreikusten duenarekin bat etorriz, eta ingurumen eraginaren baterako ebaluaketa egiteko prozedura arautzen duen 183/2003 Dekretuak, uztailaren 22koak, 3. artikuluan ezarritakoaren arabera, hiri antolaketako plan orokorrak, eta hauen aldaketak egitean, lurzoru hiritarrezinean eragingo badute, ingurumen eraginaren baterako ebaluaketa egiteko prozedura bete behar da derrigorrez. Dekretu horretako 6. artikuluan ezarritakoaren arabera, ingurumen eraginaren baterako ebaluaketa lantzeari dagokionez, aipatutako prozedura hori bete behar duen plan bat garatzeko asmoa dutenek, kasuan kasuko ingurumen organo eskudunari galdetu ahal izango diote ingurumen eraginaren azterketak jaso behar duen informazioaren hedapenari eta zehaztasun mailari buruz.

Era berean, Aldaketa hau, plan eta programa jakin batzuek ingurumenari eragindako ondorioak ebaluatzeari buruzko 2006ko apirilaren 28ko 9/2006 Legearen aplikazio esparruan sartzen da. Eta lege horrek 9. artikuluan dioenaren arabera, ingurumen iraunkortasunari buruzko txostenaren hedapena eta zehaztasun maila ingurumeneko organoak erabakiko ditu, erasandako herri administrazioak eta interesatutako jendea identifikatu eta kontsultatu ondoren, erreferentziako agiri bat eginez. Eta agiri horrek, gainera, planaren ingurumen helburuen ingurumen irizpide estrategikoak eta adierazleak, eta kasuan-kasuan aplikatu beharreko iraunkortasun printzipioak jasoko ditu.

2010eko azaroaren 16an, Astigarragako Udalaren idatzi bat jaso genuen Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusi honetan. Dokumentu horretan, HAPOren aldaketa puntuala bat egiteko asmoaren berri eman zitzaigun, batetik, Santiagomendiko interes geologikoko puntuari dagokion eremuaren kalifikazioa aldatu ahal izateko, eta bestetik, lurzoru hiritarrezinaren antolaketa-maparen irudikapen grafikoa legez aldatu ahal izateko, hau da, lurzoru horren antolaketa-mapan antzemandako akatsak

**DOCUMENTO DE REFERENCIA PARA LA EVALUACIÓN CONJUNTA DE IMPACTO AMBIENTAL DE LA MODIFICACIÓN DEL PGOU DE ASTIGARRAGA REFERIDA AL PIG "*JURÁSICO DE SANTIAGOMENDI*"**

**1.- ANTECEDENTES**

De acuerdo con lo previsto en el artículo 41 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, general de protección del medio ambiente del País Vasco, y según lo establecido en el artículo 3 del Decreto 183/2003, de 22 de julio, por el que se regula el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental, los Planes Generales de Ordenación Urbana, así como sus modificaciones, que afecten a suelo no urbanizable, deberán someterse preceptivamente al correspondiente procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental. El artículo 6 del citado Decreto establece que, a efectos de la elaboración del estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental, quienes propongan formular alguno de los planes sometidos a este procedimiento, podrán consultar al órgano ambiental correspondiente sobre la amplitud y grado de especificación de la información que ha de constar en el estudio.

Asimismo, la Modificación está dentro del ámbito de aplicación de la Ley 9/2006, de 28 de abril, sobre evaluación de los efectos de determinados planes y programas en el medio ambiente, cuyo artículo 9 establece que el alcance, nivel de detalle y el grado de especificidad del informe de sostenibilidad ambiental se determinará por el órgano ambiental, tras identificar y consultar a las administraciones públicas afectadas y al público interesado, mediante la emisión de un documento de referencia que incluirá, además, los criterios ambientales estratégicos e indicadores de los objetivos ambientales y principios de sostenibilidad aplicables en cada caso.

El 16 de noviembre de 2010, se recibe en esta Dirección General de Medio Ambiente de la DFG, un escrito del Ayuntamiento de Astigarraga en el que comunica la intención de proceder a realizar una modificación puntual del PGOU con el fin de modificar la calificación del espacio correspondiente al Punto de Interés Geológico de Santiagomendi, así como dar cobertura legal a un cambio en la representación gráfica del mapa de ordenación del suelo no urbanizable, corrigiendo errores y

zuzentzeko eta bertako kolore-banaketa aldatzeko.
Udalak, idatzi horretan, lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoak, 90. artikuluan aipatutako informazioa eskatu zigun, eta gainera, plan eta programa jakin batzuek ingurumenari eragindako ondorioak ebaluatzeari buruzko 2006ko apirilaren 28ko 9/2006 Legeak definitzen duen erreferentziako agiria. Xede horrekin, Aldaketaren oinarrizko planteamenduak jasotzen dituen txosten bat erantsi zion idatziari.

Aldaketaren helburua da Santiagomendin dauden eta Hiri Antolaketako Plan Orokorrean oso-osorik Kontserbazio Aktiboko Gune gisa sartu ziren interes geologikoko zonetan, lurzoruaren kalifikazioa aldatzea. Hiri Antolaketako Plan Orokorrean era oso murriztailean arautu ziren zona horietan ezar daitezkeen erabilera eta jarduerak. Hain zuzen ere, erregulazio hori ez da bateragarria antolaketa-kategoria horren pean dauden eremu handietan garatzen diren betidaniko nekazaritza erabilerekin. Hori horrela, eremu horietan lurzorua berriro kalifikatuko da, gaur egungo erabileren eta etorkizunerako aurreikusten diren jardueren arabera. Era berean, *Interes geologikoko puntua* izeneko baldintza ezarriko da, interes geologikoko puntuen balioak behar bezala babestuko direla bermatzearren. Eta, berariaz erregulatuko den baldintza hori, Astigarragako interes geologikoko puntu guztietan aplikatuko da.

Arauen aldaketa hau baliatuz, hainbat zuzenketa egingo dira; batetik, "0.4 (b): lurzoru hiritarrezinaren zonakatze orokorra" planoan antzemandako koloreztatze-akatsak zuzenduko dira; eta bestetik, konkordantzia akatsak, izan ere, lurzoru hiritarrezineko antolaketan nekazaritza eta abeltzaintzako nahiz nekazaritza balioko landazabal gisa kalifikatuak dauden ingurumen unitate batzuk, balio estrategiko handia duten nekazaritza eta abeltzaintza eta landazabaleko unitate gisa grafiatuak ageri dira Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektorialean.

Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio Astigarragako Hiri Antolaketako Plan Orokorraren aldaketak behin betiko onartzeko eskuduntza nagusia. Hori horrela, 1998ko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 44. artikulua aplikatuz eta Garapen Iraunkorreko Departamentuaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko 36/2008 Foru Dekretuak, maiatzaren 20koak, 11.2.1.c) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusi honi dagokio plan eta programen ingurumen eraginaren baterako ebaluaketan aintzat hartu beharreko alderdiei buruzko ebazpenak ematea.

Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusi honetan, aipatutako eskaera jaso ondoren, aldaketaren

cambiando la cromía del mapa de ordenación de dicho suelo con el fin de favorecer su legibilidad.
En dicho escrito el Ayuntamiento solicita la información a que se refiere el artículo 90 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo así como el documento de referencia a que define la Ley 9/2006, sobre evaluación de determinados planes y programas sobre el medio ambiente, remitiendo, a estos efectos, una memoria en la que se recogen los planteamientos básicos de la Modificación.

La Modificación se realiza con objeto de cambiar la calificación del suelo en las zonas de interés geológico de Santiagomendi, que fueron incluidas íntegramente por el PGOU en la categoría de Zona de Conservación Activa regulada en dicho Plan. La regulación de usos y actividades que realiza el PGOU para esta categoría es bastante restrictiva siendo, de hecho, incompatible con los usos agrarios tradicionales que se desarrollan en grandes zonas incluidas bajo esta categoría de ordenación. Por tanto, se realiza una nueva categorización del suelo en estas áreas en función de los usos actuales y previstos, al mismo tiempo que, con objeto de garantizar la protección de los valores del PIG, se define el condicionante superpuesto de *Punto de interés geológico,* que se aplicara a todos los puntos de interés geológico de Astigarraga y para el que se definirá una regulación específica.

Se aprovecha la modificación de normas para corregir asimismo los errores de coloración en el plano 0.4 (b) Zonificación global del SNU, así como errores de concordancia de las unidades ambientales de ordenación del SNU calificadas como agroganaderas y de campiña uso agrario estratégico con las cartografiadas como categoría Agroganadera y Campiña -alto valor estratégico- por el PTS Agroforestal.

La competencia sustantiva para la aprobación definitiva de las modificaciones del Plan General de Ordenación urbana del Municipio de Astigarraga corresponde a la Diputación Foral de Gipuzkoa, por lo que, en aplicación del artículo 44 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, y en consonancia con lo establecido en el artículo 11.2.1. c) del Decreto Foral 36/2008, de 20 de mayo, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Desarrollo Sostenible, corresponde a esta Dirección General de Medio Ambiente la emisión de las resoluciones relativas a los aspectos a considerar en la evaluación conjunta de impacto ambiental de planes y programas.

Recibida la solicitud, se inicia, por parte de la

eraginpeko administrazioak eta jendea identifikatu eta kontsultak egiteko tramitea jarri genuen abian, hau da, plan eta programa jakin batzuek ingurumenari eragindako ondorioak ebaluatzeari buruzko 9/2006 Legeak, apirilaren 28koak, 9. artikuluan aurreikusitako tramitea, alegia.

Txosten hau da, hain zuzen, plan eta programa jakin batzuek ingurumenari eragindako ondorioak ebaluatzeari buruzko 9/2006 Legeak, apirilaren 28koak, 9. artikuluan aurreikusitako erreferentziako agiria. Informe honek, halaber, ingurumen eraginaren baterako ebaluaketaren prozedura arautzen duen 183/2003 Dekretuak, uztailaren 22koak, 6. artikuluan ezarritako kontsulta-tramitea betetzen du.

Dirección General de Medio Ambiente, el trámite de identificación y consulta a las administraciones afectadas y al público interesado previsto en el artículo 9 de la Ley 9/2006, de 28 de abril, sobre la evaluación de los efectos de determinados planes y programas en el medio ambiente.

Este informe constituye el documento de referencia contemplado en el artículo 9 de la Ley 9/2006, de 28 de abril, sobre evaluación de los efectos de determinados planes y programas en el medio ambiente y da respuesta al trámite de consulta previsto en el artículo 6 del Decreto 183/2003, de 22 de julio, por el que se regula el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental.

## 2.- EGINDAKO KONTSULTAK

Plan eta programa jakin batzuek ingurumenean eragindako ondorioak ebaluatzeari buruzko 9/2006 Legeak, apirilaren 28koak, 9. artikuluan agindutakoa betez, honako administrazio eta erakunde hauek identifikatu eta kontsultatu ditugu:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zuzendaritza
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritzako eta Landa Garapeneko Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate eta Ingurumen Partaidetzako Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Plangintza, Ebaluazioa eta Kontrolerako Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitateko Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritza.
- IHOBE
- Kantauriko Ur Konfederazioa.
- Uraren Euskal Agentzia (URA).
- Eguzki talde ekologista
- Ekologistak Martxan Gipuzkoa talde ekologista.
- Aranzadi Zientzi Elkartea
- Hernaniko Udala
- ENBA (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna)
- EHNE (Euskal Nekazarien Batasuna)
- Behemendi

Erantzunak bidaltzeko eman zaien epea amaiturik, hauek izan dira erantzuna eman dutenak: Eusko

## 2.- CONSULTAS REALIZADAS

En aplicación de lo previsto en el artículo 9 de la Ley 9/2006, de 28 de abril, sobre la evaluación de los efectos de determinados planes y programas en el medio ambiente, se han identificado y consultado las siguientes administraciones y entidades.

- Dirección de Montes y Medio Natural de la DFG
- Dirección de Patrimonio Cultural de la DFG
- Dirección de Agricultura y Desarrollo Rural de la DFG
- Dirección de Biodiversidad y Participación del Gobierno Vasco
- Dirección de Planificación, Evaluación y Control Ambiental del Gobierno Vasco
- Dirección de Calidad Ambiental del Gobierno Vasco
- Dirección de Atención de Emergencias del Gobierno Vasco
- Dirección Territorial de de Gipuzkoa del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco
- IHOBE
- Confederación Hidrográfica del Cantábrico
- Agencia Vasca del Agua (URA)
- Grupo ecologista Eguzki
- Grupo ecologista Ekologistak Martxan Gipuzkoa
- Sociedad de Ciencias Aranzadi
- Ayuntamiento de Hernani
- ENBA (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna)
- EHNE (Euskal Nekazarien Batasuna)
- Behemendi

Transcurrido el plazo otorgado para la remisión de respuestas, se han recibido las de la Dirección de

Jaurlaritzako Biodibertsitate eta Ingurumen Partaidetzako Zuzendaritza; Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritza; IHOBE, eta Kautauriko Ur Konfederazioa. Txosten horien kopiak eranskin gisa atxiki zaizkio aurretxosten honi.

**Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate eta Ingurumen Partaidetzako Zuzendaritzak** jakinarazi digunez, kategoria-aldaketak eragingo duen eremuan ez dago biodibertsitatearen ikuspegitik nabarmentzeko moduko elementurik. Hala eta guztiz ere, txostenean adierazten du Hiri Antolaketako Plan Orokorrean udalerriari buruz egindako zonakatzean ez direla aintzat hartu Zuzendaritza horrek egindako antolaketa-gomendioak, baso-masa autoktonoen erabilerak sailkatu eta arautzeari dagokionez, txilardi lehorren 4030 habitatari dagokionez, eta espezie autoktonoen heskaiei dagokienez.

**Osasun eta Kontsumo Sailaren Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritzak** adierazi du ez dela ahaztu behar eremu honetan Santiagomendin edateko ura banatzeko azpiegiturak daudela.

**IHOBE, S.A.** erakundeak adierazi digunez, esku-hartzearen xede izango den eremu honetan ez dago lurzorua kutsa dezaketen jarduerak jasan izan dituen lursailik.

Azkenik, **Kantauriko Ur konfederazioak** adierazi digunez, esku-hartzearen xede izango den eremu hau kondeferazioaren eskumenekoa den esparru geografikotik kanpo dago.

Erreferentziako agiri hau egin ondoren beste erantzunen bat jasoko bagenu, Astigarragako Udalari bidaliko genioke ahal bezain laster, erantzun hori aintzat har dezan bai Aldaketa erredaktatzerakoan, eta bai ingurumen eraginaren baterako ebaluaketa (IEBE) egiterakoan.

## <u>3.- INGURUMEN ARLOKO IRIZPIDE ESTRATEGIKOAK</u>

Aldaketan aintzat hartzen diren ingurumen irizpideek bat etorri beharko dute honako hauetan ezarritakoekin; hau da, Garapen Iraunkorreko 2002-2020 Euskal Ingurumen Estrategian, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko lege orokorrean, 1998ko otsailaren 27ko 3/1998 Legean, hala nola Lur Legearen Testu Bategina onartzen duen 2008ko ekainaren 20ko 2/2008 Legegintzaldiko Errege Dekretuan, eta lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legean ezarritako irizpideekin. Kontuan harturik Aldaketaren eragina lurzoru hiritarrezinera

Biodiversidad y Participación Ambiental y la Dirección Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco, IHOBE y la Confederación Hidrográfica del Cantábrico. Se remiten copias de los informes como anexos al presente informe preliminar.

La **Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental** del Gobierno Vasco informa que la zona afectada por el cambio de categoría no cuenta con elementos destacados de la biodiversidad. Sin embargo, señala que en la zonificación realizada del término municipal en el PGOU no se atendieron las recomendaciones de ordenación realizadas por la citada Dirección en cuanto a categorización y regulación de usos de las masas forestales autóctonas, el hábitat 4030 brezales secos y los setos de especies autóctonas.

La **Dirección Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Sanidad y Consumo** por su parte, señala que deben tener en cuenta la presencia de las infraestructuras de distribución de agua potable de Santiagomendi.

**IHOBE S.A.** señala que en la zona objeto de intervención no se ha constatado la existencia de parcelas que hayan soportado actividades potencialmente contaminantes del suelo.

Por último, la **Confederación Hidrografía del Cantábrico** señala que la zona objeto de actuación se encuentra fuera de su ámbito geográfico competencial.

En caso de recibirse alguna respuesta posterior a la emisión de este Documento de Referencia, ésta será remitida al Ayuntamiento de Astigarraga en el plazo más breve posible, a fin de que sea tenida en cuenta en la redacción de la Modificación y en la elaboración del estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental (ECIA).

## <u>3.- CRITERIOS AMBIENTALES ESTRATÉGICOS</u>

Los criterios ambientales que se consideren en la Modificación deberán ser compatibles con los establecidos en la Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible 2002-2020, la Ley 3/1998 de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, el Real Decreto Legislativo 2/2008, de 20 de junio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Suelo y la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo. Teniendo en cuenta que el alcance de la Modificación se limita al suelo no urbanizable, se asumirá el principio general de <u>ordenar y regular el medio rural y natural atendiendo a su diversidad de</u>

mugatuko dela, honako hau erabiliko da printzipio orokor gisa: landa eta natura ingurunea, dituen zeregin anitzen –ekoizpena, habitata, alor ekologikoa, sozio-kulturala, eta abar– arabera antolatu eta erregulatzea.

Horretarako, honako antolaketa printzipio hauek hartuko dira kontuan:

- Santiagomendiren landa izaera mantentzea, nekazaritza ustiategiei lotu gabeko etxebizitza eta eraikin berriak saihestuz, eta hiritartze lanen ondorioz edo azpiegiturak eraikitzearen ondorioz, lurzorua artifizializatu ez dadin begiratuz.
- Betidaniko nekazaritza habitatak (sega-belardiak eta sagastiak), hala nola erabilera horiei lotutako nekazaritza ustiategiak babestea eta sustatzea.
- Baso-ekosistemen gehiegizko zatiketa saihestea eta, horretarako, zuhaiztiak eta lurzatiak banantzeko heskaiak mantentzea.
- Paisaiaren kalitatea lurraldea antolatzeko eta erregulatzeko irizpidetzat jotzea, eta kalitate hori zaintzera bideratutako neurriak jartzea.
- Santiagomendiko interes geologiko puntuaren balio zientifiko, didaktiko eta dibulgatiboak babestea.
- Santiagomendin dauden ur kudeaketarako azpiegiturak babestea.

## 4.- ALDAKETAREN APLIKAZIO ESPARRUAN DAUDEN BALIABIDEAK ETA INGURUMEN INTERES BEREZIKO EREMUAK, ETA HORIEN BABES HELBURUAK

Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusi honetan jasotako informazio bibliografiko eta kartografikoa begiratu ondoren, egindako kontsulten emaitza-txostenak ikusita, eta Astigarragako Hiri Antolaketako Arauen Berriksupena izapidetzeko prozesuan zehar egindako hainbat txosten eta azterlan kontsultatu ostean, Aldaketan proposatutako jardueren eragina jasan dezaketen baliabide ahul edota baliotsu hauek identifikatu ditugu Aldaketaren aplikazio esparruan.

a.- Baso autoktonoak. Lurzoru hiritarrezinaren antolaketak babestu egin beharko ditu Astigarragako udal barrutian dauden harizti-baso mistoko zuhaizti urriak, eta antolaketako kategoriaren batean sartu, formazio hauek babes egokia izango duten moduan, betiere baso-masa

funciones: productiva, hábitat, ecológica, socio-cultural, etc.

Para ello, se tendrán en cuenta los siguientes principios de ordenación:

- Mantener el carácter rural de Santiagomendi, evitando la construcción de viviendas u otras edificaciones no vinculadas a las explotaciones agrarias y la artificialización del suelo por urbanización o construcción de infraestructuras.
- Protección y fomento de los hábitats agrarios tradicionales (prados de siega y plantaciones de manzanos) y de las explotaciones agrarias vinculadas a estos usos.
- Evitar la excesiva fragmentación de los ecosistemas forestales, procurando el mantenimiento de los bosquetes y setos de separación entre parcelas.
- Considerar la calidad paisajística como criterio de ordenación y regulación, introduciendo medidas orientadas a su preservación.
- Protección de los valores científicos, didácticos y divulgativos del Punto de Interés Geológico de Santiagomendi.
- Protección de las infraestructuras de gestión del agua presentes en Santiagomendi.

## 4.- RECURSOS Y ESPACIOS DE ESPECIAL INTERÉS AMBIENTAL QUE SE ENCUENTRAN EN EL ÁMBITO DE APLICACIÓN DE LA MODIFICACIÓN Y OBJETIVOS DE PROTECCIÓN

Consultada la información bibliográfica y cartográfica existente en esta Dirección General de Medio Ambiente, los informes de resultados de las consultas efectuadas, y los diversos informes y estudios emitidos en el proceso de tramitación de la Revisión de las NNSS de Astigarraga, se han identificado los siguientes recursos frágiles y/o valiosos en el ámbito de aplicación de la Modificación o que pudieran ser afectados por las actuaciones planteadas en la misma.

a.- Bosques autóctonos. La ordenación del suelo no urbanizable deberá otorgar protección a las escasas masas de robledal-bosque mixto presentes en el término municipal de Astigarraga, incluyéndolos en alguna categoría de ordenación que dote de una adecuada protección a estas

helduenak mantentzen saiatuz eta baso gazteak egoera helduagoetara hel daitezen bultzatuz.

b.- Komunitatearen intereseko habitatak: Lurzoru hiritarrezina erregulatzerakoan, habitat horiek mantentzeko eta hobetzeko modua egingo da, eta horretarako aintzat hartuko dira udal barrutian dauden komunitatearen intereseko habitat mota hauetako bakoitzarentzako eskakizun ekologikoak:

a. 6510. 6510 Altitude txikiko sega-belardi pobreak.
b. 4030. Txilardi lehor azidofiloak.
c. 9260. Gaztainadi zaharrak.
d. 9120. Pagadi azidofiloak.

Antolaketak, ildo horri jarraituz, habitat horiek mantentzen lagunduko duten eta, halakorik behar denean, habitat horien berezko bilakaera ahalbidetuko duten nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerak eta jarduerak sustatuko ditu.

c.- Santiagomendiko Jurasikoa, interes geologiko puntua. Aldaketan definitu eta karakterizatzen den baldintza gainjarriak, interes geologikoko puntuaren balio zientifiko, didaktiko eta dibulgatiboen kontserbazioa bermatzeko beharrezkoak diren mugak ezarri beharko ditu.

d.- Korridore ekologikoen sarea. Astigarraga Aiako Harria parke naturaletik hain hurbil egoteak, udal barrutiaren hegoaldeko eremua Euskal Autonomia Erkidegoko Korridore Ekologikoen Sarearen guneko indargetze-eremuan sartua egotea ekarri du berarekin. Indargetze eremuei begira, kudeaketa helburu zehatz batzuk ezartzea gomendatzen da; hain zuzen ere, honako helburuak lortzen saiatzea: inpaktuak prebenitzea, eremu hauek dauden-daudenean mantentzea, eta bidezko bada, berezko landaretza berreskuratzea eta nekazaritza, abeltzaintza eta ehizarako probetxamenduen ustiaketa iraunkorra egitea. Epe erreka, halaber, lotune gisa interes berezia duen ibai zati gisa izendatu da; beraz, aipatutako plangintza horretan, lotune ekologiko gisa betetzen duen zeregin hori betetzen jarrai dezan bilatuko da.

e.- Ondare historiko arkitektonikoa osatzen duten elementuak (Santiagomendiko ermita eta Done Jakue Bideko beste hainbat elementu) eta ondare arkeologikoa osatzen dutenak (Txoritokietako estazio megalitikoa eta Igoi-Akolako estazio megalitikoa). Antolaketaren barruan, lurzoru hiritarrezinean dauden ondare-elementuak babesteko arauak eta gomendioak jasoko dira.

f.- Paisaiaren kalitatea. Santiagomendiko gaina tontor batean dago, eta jende asko biltzen duen ingurunetik erraz ikusten da; beraz, eremu honetan

formaciones y procurando el mantenimiento de las masas más maduras y la evolución hacia estadios más maduros de las masas forestales jóvenes.

b.- Hábitats de interés comunitario: la regulación del suelo no urbanizable procurará el mantenimiento y mejora de estos hábitats, teniendo en cuenta las exigencias ecológicas(1) de cada uno de los tipos de hábitats de interés comunitario presentes en el término municipal:

e. 6510. Prados pobres de siega de baja altitud.
f. 4030. Brezales secos acidófilos.
g. 9260. Plantaciones antiguas de castaños.
h. 9120. Hayedos acidófilos.

De este modo, la ordenación fomentará los usos y actividades agrícolas y ganaderas que contribuyan, en su caso, al mantenimiento de estos hábitats, y la evolución natural de los tipos de hábitats que así lo requieran.

c.- Punto de Interés Geológico Jurásico de Santiagomendi. El condicionante superpuesto que se defina y caracterice en la Modificación, deberá establecer las limitaciones precisas para garantizar la conservación de los valores científicos, didácticos y divulgativos del PIG.

d.- Red de corredores ecológicos. La cercanía de Astigarraga al parque natural de Aiako Harria hace que la zona meridional del término municipal esté incluida en el área de amortiguación de este espacio-núcleo de la Red de Corredores Ecológicos de la CAPV. Para las zonas de amortiguación, se recomienda el establecimiento de unos objetivos de gestión que se centren en la prevención de impactos, la conservación y, en su caso, la restauración de los elementos de la vegetación natural y la explotación sostenible de los aprovechamientos agrícolas, ganaderos y cinegéticos. Asimismo, el arroyo Epele ha sido designado como tramo fluvial de especial interés conector, por lo que el planeamiento deberá favorecer el mantenimiento de su funcionalidad como conector ecológico.

e.- Elementos integrantes del patrimonio histórico arquitectónico (Ermita de Santiagomendi y otros elementos del Camino de Santiago) y el patrimonio arqueológico (estación megalítica de Txoritokieta, estación megalítica de Igoin-Akola). La ordenación asumirá las normas y recomendaciones de protección de aquellos elementos del patrimonio situados en el suelo no urbanizable.

f.- Calidad paisajística. La parte alta de Santiagomendi presenta un carácter prominente y una alta visibilidad sobre un entorno de gran

lurzoru hiritarrezina antolatzerakoan, paisaiaren kalitatea mantentzea izango da helburu nagusienetako bat.

frecuentación, por lo que la ordenación del suelo no urbanizable en esta zona deberá tener, como uno de sus objetivos prioritarios, el mantenimiento de la calidad paisajística.

g.- Gaitasun agrologiko handiko lurrak. Lurzoru hiritarrezinaren antolaketak modu egokian babestu egin beharko ditu ekoizpen gehien ematen duten lurrak, hauek artifizializatuko dituzten jarduerak saihestuz, eta ustiapen bidean jarrai dezaten saiatuz.

g.- Suelos de alta capacidad agrológica. La ordenación del suelo no urbanizable deberá otorgar una protección adecuada a los suelos más productivos, evitando toda actuación que suponga la artificialización de estos suelos y procurando su mantenimiento en explotación.

h.- Santiagomendin edateko ura banatzeko azpiegiturak babestu egin beharko dira hornidura-uren kalitatea kaltetu lezakeen jarduera orotatik.

h.-Infraestructuras de distribución de agua potable en Santiagomendi, que deberán ser protegidas de cualquier actividad que suponga un riesgo para la calidad de las aguas de abastecimiento.

## 5.- IEBE AZTERLANAREN EDUKIA ETA HELMENA

## 5.- CONTENIDO Y ALCANCE DEL ESTUDIO DE ECIA

IEBE azterlanaren edukia, ingurumen eraginaren baterako ebaluaketaren prozedura arautzen duen 2003ko uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuaren eranskinean ezarritakoa bera izango da. IEBE azterlanak, halaber, plan eta programa jakin batzuek ingurumenean izan lezaketen eragina ebaluatzeari buruzko legeak, apirilaren 28ko 9/2006 Legeak, agindutako informazioa jaso beharko du; hau da, I. eranskinean ezarritakoaren arabera, ingurumen iraunkortasuneko txostenek jaso beharreko informazioa.

El contenido del estudio de ECIA se establece en el anexo Decreto 183/2003, de 22 de julio, por el que se regula el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental. Asimismo, el estudio de ECIA deberá contener la información que la Ley 9/2006, de 28 de abril, sobre evaluación de los efectos de determinados planes y programas en el medio ambiente, establece para los informes de sostenibilidad ambiental en su anexo I.

Hori horrela, Astigarragako Hiri Antolaketako Plan Orokorraren Aldaketaren ingurumen eraginaren baterako ebaluaketa horretan, aipatutako arauek agindutako edukiak jaso beharko dira, honako eskema honi jarraiki:

Por tanto, el estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental de la Modificación del PGOU de Astigarraga deberá aportar los contenidos exigidos por las citadas normas, desarrollando el esquema siguiente:

**5.1.– Planaren helburu estrategikoen eta helburu horiek lortzeko aintzat hartutako hautabideen deskripzioa.**

**5.1.– Descripción de los objetivos estratégicos del plan y de las alternativas consideradas para alcanzar dichos objetivos**.

Ingurumen eraginaren baterako ebaluaketak, puntu honetan, Aldaketa honetan planteatutako irizpide eta helburu zehatzak azaldu beharko ditu, bai orokorrak eta baita zehatz-mehatz ingurumenarekin lotuta daudenak ere. Gainera, irizpide eta helburu horiek, honako Erreferentziako Agiri honen 3. eta 4. apartatuetan aipatu diren iraunkortasunerako hala nola ingurumena babesteko eta hobetzeko irizpide eta helburu orokorrekin bateragarriak diren ala ez aztertu beharko du.

El estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental, en este punto, deberá exponer los criterios y objetivos concretos que se han planteado en la Modificación, tanto los generales como los estrictamente ambientales, y analizar su adecuación a los criterios y objetivos generales de sostenibilidad y protección y mejora ambiental mencionados en los apartados 3 y 4 de este Documento de Referencia.

Erdietsi nahi diren helburuak beste hautabide batzuei jarraituz lor badaitezke (kasu honetan, lurzoru hiritarrezinaren antolaketa-kategoriak aplikatzeko aukera desberdinei jarraituz) apartatu honetan aurretiazko izaeraz eta modu laburrean aurkeztuko dira, gero azterlan zehatzago bat egitekotan. Eta azterketa xehatu hori, honako

En el caso de que los objetivos perseguidos puedan alcanzarse mediante diferentes alternativas (que en este caso, se traducirían en diferentes opciones de aplicación de las categorías de ordenación del suelo no urbanizable), en este apartado se presentarán preliminarmente y de forma resumida y sintética, a

txosten honen 5.4 apartatuan zehaztutakoari jarraituz egingo da.

sintética, a expensas del análisis más pormenorizado que debe de efectuarse de acuerdo con lo especificado en el apartado 5.4 de este informe.

**5.2.- Aldaketak beste plan eta programekin izan ditzakeen elkarreraginen azterketa**

Astigarragako lurzoru hiritarrezinaren antolaketarekin zerikusia duten plan eta programak identifikatu egingo dira. Aintzat hartuko dira, gutxienez, honako hauek:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldea Antolatzeko Artezpideak (LAA).
- Donostialdea Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala.
- Euskal Autonomia Erkidegoko ibai bazterrak eta erreka bazterrak antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- Nekazaritza eta basogintzako Lurralde Plan Sektoriala.
- Astigarragako Tokiko 21 Agendako Jarduketa Plana.
- Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020). 2011-2014 Ingurumen Esparru Programaren zirriborroa.
- Korridore ekologikoen sarea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Iraunkorreko 2007-2013 Programa.

**5.2.– Análisis de las interacciones con otros planes o programas**

Se identificarán los planes y programas que guarden relación con la ordenación del suelo no urbanizable de Astigarraga, teniendo en cuenta, al menos, los siguientes:

- Directrices de Ordenación Territorial de la CAPV (DOT).
- Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Donostialdea.
- Plan Territorial Sectorial de Ordenación de las Márgenes de los Ríos y Arroyos de la CAPV.
- Plan Territorial Sectorial Agroforestal.
- Plan de Acción de la Agenda Local 21 de Astigarraga.
- Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible 2002-2020. Borrador del Programa Marco Ambiental 2011-2014.
- Red de corredores ecológicos.
- Programa de Desarrollo Rural Sostenible del País Vasco 2007-2013.

**5.3.– Planak ukitutako esparruaren ingurumen azterketa, diagnostikoa eta balorazioa**

Aldaketak eragindako alderdien ingurumen ezaugarriak deskribatuko dira, inguruneko elementu guztien kontserbazio egoera bezalaxe. Hori horrela, ingurumen eraginaren baterako ebaluaketa egiteko prozedura arautzen duen 183/2003 Dekretuak, uztailaren 22koak, bere eranskinaren 3. atalean ezarritako edukiak garatuko dira. Horretarako, Hiri Antolaketako Plan Orokorra izapidetzeko xedez idatzitako ingurumen iraunkortasuneko txostena egiteko bildutako informazioa erabili ahal izango da. Dena den, informazio hori gaur egungo egoerara moldatu beharko da, eta arreta berezia jarriko zaie aldatutako alderdiak direla-eta, lurzoru hiritarrezinean nabarmenak izan daitezkeen alderdiei.

**5.3.– Análisis, diagnóstico y valoración ambiental del ámbito afectado por el Plan**

Se describirán las características ambientales de las áreas afectadas por la Modificación y el estado de conservación de los distintos elementos del medio, desarrollando los contenidos establecidos en el apartado 3 del anexo del Decreto 183/2003, de 22 de julio, por el que se regula el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental. Se podrá utilizar para ello la información recopilada para la redacción del informe de sostenibilidad ambiental redactado con motivo de la tramitación de Plan General de Ordenación Urbana, adaptando dicha información a la situación actual y centrando la atención en aquellos aspectos relativos al suelo no urbanizable que pudieran resultar significativos en referencia a los aspectos modificados.

**5.4.– Teknikoki zentzuzkoak diren hautabideen ingurumen azterketa. Hautatutako irtenbidearen justifikazioa**

Aldaketaren bitartez erdietsi nahi den helburua (lurzoru hiritarrezina, oraingo erabilerekin eta aurreikusitako jarduerekin bat etorriko den eran arautzea) beste hautabide batzuei jarraituz lor

**5.4.– Examen ambiental de las alternativas técnicamente razonables. Justificación de la solución adoptada**

En el caso de que el objetivo perseguido con la Modificación (establecer una regulación del suelo no urbanizable más acorde con los usos existentes y previstos) pudiera alcanzarse mediante distintas

badaiteke, eta hautabide horietako bakoitzak sor ditzakeen ingurumen eraginen artean diferentzia nabarmenak baldin badaude, ingurumen eraginaren baterako ebaluaketak hautabide horien ingurumen azterketa jaso beharko du.

alternativas de ordenación y pudieran existir diferencias significativas en cuanto a los potenciales impactos ambientales producidos por cada una de ellas, el estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental deberá contener un examen ambiental de las alternativas.

Azterketa horretan, lortu nahi diren helburuen lortze maila, eta antolaketako hautabide bakoitzak identifikatutako elementu baliotsu edo ahul bakoitzari ematen dion babes maila alderatuko dira. Eta azkenean, erabakitzako aukera arrazoituko da, ingurumenaren ikuspegitik begiratuta.

El análisis consistirá en una comparación entre el grado de consecución de los objetivos pretendidos y el grado de protección que otorga cada una de las alternativas de ordenación a cada uno de los elementos valiosos o sensibles del medio identificados y concluirá, con una justificación, desde el punto de vista ambiental, de la opción finalmente adoptada.

Hautabideen artean, nahitaez, “0 hautabidea” edo “oraingo planeamendua mantentzea” aztertu beharko da.

Entre las posibles alternativas, deberá considerar preceptivamente la “alternativa 0” o de mantenimiento del planeamiento actual.

**5.5.– Proposatutako jarduketen eraginak identifikatzea eta baloratzea**

**5.5.– Identificación y valoración de impactos de las diferentes actuaciones planteadas**

Proposatutako erregulazioak sor ditzakeen ingurumen eraginak identifikatu eta baloratu egingo dira.

Se identificarán y valorarán los impactos ambientales que pudiera causar la regulación planteada.

Hiri Antolaketako Plan Orokorraren Aldaketak, zuzenean, antolatutako ingurunea fisikoki eralda dezakeen jarduerarik planteatzen ez badu ere, erregulazio eskuzabalagoa ezartzen du lurzoru hiritarrezineko eremu handietan sustatuko diren edo onargarriak izan daitezkeen erabilera eta jarduerei dagokienez. Beraz, pentsa liteke, erabilera eta jarduera horiei lotutako ingurumen eraginak sortuko direla.

A pesar de que la Modificación del PGOU no plantea directamente actuaciones que supongan la transformación física del medio ordenado, establece un marco regulatorio más permisivo en cuanto a usos y actividades propiciados y autorizables en amplias zonas del suelo no urbanizable, por lo que será de esperar que se generen impactos ambientales asociados a estos usos y actividades.

Hori horrela, ingurumen eraginaren baterako ebaluaketak, Aldaketak eragin ditzakeen ingurumen eraginak zenbatetsi behar ditu; eta horretarako, erabilera eta jarduera onargarriek eragin ditzaketen ingurumen eraginak, antolaketako arau berriei jarraituz identifikatu behar dira. Gero, identifikatutako inpaktu bakoitza, dagokion magnitudean eta intentsitatean zehaztu eta baloratu beharko da, ingurumen eragina baloratzeari buruzko errege dekretuak, 1988ko irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretuak, I. eranskinean adierazitako terminologia erabiliz.

En consecuencia, el estudio de evaluación conjunta de impacto deberá estimar las posibles consecuencias ambientales de la Modificación mediante la identificación de los impactos potenciales que podrían generar los usos y actividades autorizables en base a la nuevas normas de ordenación. Posteriormente deberá tratarse de caracterizar y valorar la magnitud e intensidad de cada uno de los impactos identificados, de acuerdo con la terminología expresada en el Anexo I del R. D. 1131/1988, de 30 de septiembre, de evaluación de impacto ambiental.

**5.6.– Neurri babesgarri, zuzentzaile eta konpentsagarriak proposatzea**

**5.6.– Propuesta de medidas protectoras, correctoras y compensatorias**

Lurzoru hiritarrezinaren antolaketa berriak ekar ditzakeen ingurumen eraginak identifikatzean, hartu beharreko neurri babesgarri, zuzentzaile eta konpentsagarri berriak proposatuko dira.

Una vez identificados los impactos ambientales que se pudieran derivar de la nueva ordenación del suelo no urbanizable, se realiza una propuesta de medidas protectoras, correctoras y compensatorias.

Neurri horiek, udal barrutiko lurzoru hiritarrezinean

Las medidas irán dirigidas a dotar de una protección

dauden ingurumen elementu baliotsuenak behar bezala babestea izango dute helburu; horretarako, lurzoru hiritarrezina behar bezala zehaztuko da, eta gainera, Aldaketa honen kariaz onartuko diren erabilera eta jardueren ingurumen eragin kaltegarriak murriztera bideratuko dira neurri horiek.

Neurri babesgarriei dagokienez, lurzoru hiritarrezineko kategoria desberdinak era egokian aplikatuko dira lurraldean; hau da, Astigarragako lurzoru hiritarrezienan dauden ingurumen baliabideei babes maila oso handia bermatuko zaie.

Neurri zuzentzaileak honakoak izan daitezke: jarduerak, erabilerak eta azpiegiturak ezartzeko eta garatzeko baldintzak, eta ingurumena zein paisaia babesteko neurriak, hain zuzen ere, lurzoru hiritarrezina erregulatuko duen araudian sartu beharrekoak.

Er aberean, jarduera konpentsatzaileak ezar daitezke, esate baterako, beste zonei emandako babesa murriztearen konpentsazio gisa, zona jakin batzuen babes maila areagotzea (adibidez, hostozabalen baso-masa autoktonoen gehiena babes bereziko kategorian sartuta).

Aldaketak, neurri osagarri gisa, babes eta kontserbazioko plan berezi bat egin eta onartu beharra aurreikus dezake. Plan berezi horretan, lurzoru hiritarrezinaren xehetasunezko azterketa batetik abiatuta, udal barrutiko lurzoru hiritarrezin guztiaren xehetasunezko erregulazioa ezar daiteke, edo bestela, Santiagomendiri bakarrari buruzkoa, baina betiere, babes neurri gehigarriak finkatuta.

**5.7.– Planaren ondorioak ikuskatzeko programa**

Azterketak, Aldaketaren ondorioak ikuskatzeko programa bat jaso beharko du, eta programa horren helburua izango da ingurumenaren kalitatea zainduko dela bermatzea, eta ingurumen eraginaren baterako ebaluaketan proposatutako neurri babesgarriak eta konpentsagarriak beteko direla ziurtatzea.

Hori horrela, jarraitu beharreko ingurumen sistemak, alderdiak edo aldaerak identifikatu beharko dira eta, era berean, jarraipen horretarako ezarriko diren adierazleak finkatu eta erabiliko den metodologia zehaztuko da (datuak hartzeko estrategiak, gehieneko edo erreferentziako mailak, maiztasuna, langileria, aurrekontua, aldizkako txostenak egiteko era, eta abar). Hau da, identifikatutako inpakturik esanguratsuenetako bakoitzaren jarraipena egiteko aukera ziurtatuko da, eta baita proposatutako neurri

protección adecuada a los elementos ambientales más valiosos del suelo no urbanizable del término municipal, mediante una adecuada categorización del SNU, así como a reducir los impactos ambientales negativos de los usos y actividades que se autorizan con la presente Modificación.

Las medidas protectoras se materializaran en una adecuada aplicación territorial de las diferentes categorías del suelo no urbanizable, de modo que quede garantizado un alto nivel de protección de los recursos ambientales existentes en el suelo no urbanizable de Astigarraga.

Las medidas correctoras se podrán plantear como condiciones para la implantación y desarrollo de actividades, usos e infraestructuras y como medidas de restauración ambiental y paisajística a integrar en la normativa que regula el uso del suelo no urbanizable.

Se podrán establecer asimismo, actuaciones compensatorias mediante un aumento de la protección de ciertas zonas (por ejemplo, la inclusión de la mayor parte de las masas de frondosas autóctonas en la categoría de especial protección) como compensación de la reducción de la protección otorgada a otras zonas.

Como medida complementaria, la Modificación puede recoger la previsión de formular y aprobar un plan especial de protección y conservación que, a partir de un análisis detallado del suelo no urbanizable realice una regulación pormenorizada bien del conjunto del suelo no urbanizable del Municipio, bien de la zona de Santiagomendi, estableciendo normas adicionales de protección.

**5.7.– Programa de supervisión de los efectos del plan**

El estudio deberá contener un Programa de supervisión de los efectos de la Modificación, cuyo objetivo debe ser garantizar la preservación de la calidad ambiental, así como el cumplimiento de las medidas correctoras y compensatorias propuestas en el estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental.

Para ello, se identificarán los sistemas, aspectos o variables ambientales que deberán ser objeto de seguimiento, los indicadores de seguimiento que se fijarán y la metodología que se utilizará (estrategias de tomas de datos, niveles límites o de referencia, periodicidad, personal, presupuesto, elaboración de informes periódicos, etc.), de modo que pueda realizarse el seguimiento de cada uno de los impactos significativos identificados y del cumplimiento de las medidas protectoras,

babesgarri, zuzentzaile eta konpentsagarrien betetze-mailaren eta neurri horien eraginkortasunaren jarraipena egiteko ere.

correctoras y compensatorias propuestas, así como la efectividad de las mismas.

Baina ahaleginak bikoiztu ez daitezen, eta koherentzia bermatu dadin, ikuskatzeko programa hori Astigarragako Hiri Antolaketako Plan Orokorraren ingurumena zaintzeko programan txerta daiteke, programa hau Aldaketatik etorriko diren eragin eta gorabehera berrietara egokituta.

Con objeto de no duplicar esfuerzos y garantizar la coherencia, el programa de supervisión podrá integrarse en el programa de vigilancia ambiental del PGOU de Astigarraga, adaptando éste a los nuevos impactos y circunstancias derivadas de la Modificación.

Ikuskatzeko programa, edozein kasutan ere, ingurumenaren kalitatea zainduko dela bermatzea izan behar du helburu, eta aldi berean, ingurumen eraginaren baterako ebaluaketan proposatutako neurri babesgarriak eta konpentsagarriak beteko direla ziurtatzea.

En cualquier caso, el objetivo del Programa de supervisión debe ser garantizar la preservación de la calidad ambiental, así como el cumplimiento de las medidas correctoras y compensatorias propuestas en el estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental.

**5.8.– Laburpen agiria**

Laburpen agiri bat egin beharko da, 183/2003 Dekretuaren eranskineko 8. apartatuan ezarritakoari jarraituz. Agiri horretan, aurreko puntuetan jasotako informazio guztia eman beharko da jakitera, era zehatzean eta jendeak erraz ulertzeko moduan. Era berean, agirian dokumentazio grafikoa sartzea gomendatzen dugu, jendeak informazio zehatzagoa jaso dezan.

**5.8.– Documento de síntesis**

Deberá redactarse un documento de síntesis según se establece en el apartado 8 del anexo del Decreto 183/2003, con información concisa y en términos asequibles al público en general para dar a conocer toda la información recogida en los puntos anteriores. Se recomienda asimismo la inclusión de documentación gráfica con fines de información pública.

**5.9.- Hautabideen eta neurrien bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena**

Hautabide desberdinen eta Aldaketan aurreikusitako jarduerek izan ditzaketen ondorio kaltegarriak prebenitu, murriztu edo arintzera bideratutako neurrien bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena aurkeztuko da.

**5.9.- Informe sobre la viabilidad económica de alternativas y medidas**

Se aportará un informe sobre la viabilidad económica de las alternativas y de las medidas dirigidas a prevenir, reducir o paliar los efectos negativos que pudiera generar la aplicación de la Modificación.

**6.- INFORMAZIOA EMATEKO ETA KONTSULTA EGITEKO ERAK**

Plan eta programa jakin batzuek ingurumenari eragindako ondorioak ebaluatzeari buruzko 9/2006 Legeak, apirilaren 28koak, 9. eta 10. artikuluetan agindutakoa betez, informazioa jasotzeko eta kontsulta egiteko moduei dagokienez, Astigarragako Udalak honako jarduketak burutuko ditu:

a.- Ukitutako herri administrazioei eta herritar interesatuei kontsulta egingo die, HAPOren Aldaketaren lehendabiziko dokumentua eta horri dagokion ingurumen eraginaren baterako ebaluaketa bidaliz.

b.- Aldaketaren lehendabiziko dokumentua eta horri dagokion ingurumen eraginaren baterako ebaluaketa jendaurrean jarriko ditu ikusgai, gutxienez 45 eguneko epean, interesdunek

**6.- MODALIDADES DE INFORMACIÓN Y CONSULTA**

En cumplimiento de lo establecido en los artículos 9 y 10 de la Ley 9/2006, de 28 de abril, sobre evaluación de los efectos de determinados planes y programas sobre el medio ambiente, respecto a las modalidades de información y consulta, el Ayuntamiento de Astigarraga realizará las siguientes actuaciones:

a.- Consulta a las administraciones públicas afectadas y al público interesado mediante el primer documento de la Modificación del PGOU y de su estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental.

b.- Información pública del primer documento de la Modificación y de su estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental, mediante inserción de anuncio en diario oficial,

aztertu eta bidezko oharrak egin ditzaten; beraz, horren berri emango du aldizkari ofizialean.

Arestian esandako horri dagokionez, ukitutako herri administraziotzat eta herritar interesatutzat joko dira, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusi honek Erreferentziako Agiri hau egiteko xedez kontsultatu dituen administrazio eta entitate publikoak (dokumentu honetako 2. apartatua) eta Udalak identifika ditzakeen herri mailako antolakundeak (auzo elkarteak, herritarren foroak eta beste hainbat erakunde).

## 7.- INGURUMEN ERAGINAREN AURRETXOSTENA ESKATZEA

Ingurumen eraginaren baterako ebaluaketa egiteko prozedura arautzen duen 183/2003 Dekretuak, uztailaren 22koak, 17. artikuluan ezarritakoari jarraituz, Astigarragako Udalak, HAPOren Aldaketari hasierako onespena eman aurretik, Ingurumen Eraginaren Aurretxostena egiteko eskatu behar dio Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusi honi. Eta eskaera horrekin batera, Aldaketaren aurrerakina edo lehendabiziko dokumentua aurkeztuko du, eta baita ingurumen eraginaren baterako ebaluaketaren azterlana ere, erreferentziako agiri honetako 3 apartatuan agindutako edukia jasoz.

1. Komunitatearen intereseko habitat bakoitzarentzako definitu diren kudeaketa-jarraibideak. http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-u95/es/u95aWar/habitatsJSP/U95aEntradaConsultaArbolHabitats.do?flnMenu=true

disponiendo al menos de 45 días para su examen y formulación de observaciones.

A efectos de lo anterior, se considerarán administraciones públicas afectadas y público interesado las administraciones y entidades consultadas por esta Dirección General de Medio Ambiente para la redacción de este Documento de Referencia (apartado 2 de este documento), así como aquellas organizaciones de carácter local (asociaciones de vecinos, foros ciudadanos u otras entidades) que pudiera identificar el Ayuntamiento.

## 7.- SOLICITUD DE INFORME PRELIMINAR DE IMPACTO AMBIENTAL

En aplicación de lo establecido en el artículo 17 del Decreto 183/2003, de 22 de julio, por el que se regula el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental, con carácter previo a la aprobación inicial de la Modificación del PGOU, el Ayuntamiento de Astigarraga solicitará, a esta Dirección General de Medio Ambiente, la emisión del informe preliminar de impacto ambiental, debiendo acompañar la solicitud del avance o primer documento de la Modificación y del estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental, con el contenido especificado en el apartado 3 de este documento de referencia.

1. Directrices de gestión definidas para cada uno de los habitas de interés comunitario. http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-u95/es/u95aWar/habitatsJSP/U95aEntradaConsultaArbolHabitats.do?flnMenu=true